

# LAZKAO-TXIKIREN OMENEZ

---

## I

Bertso kantari heldu gerade  
gutziz borondate onez  
buru makurka eta apalki  
ez harro eta afanez  
guri entzuten egon liteke  
nahiz bera hemen egon ez  
dozen erdi bat kanta ditzagun  
Lazkao-Txikin omenez.

## II

Lazkao-Txiki aipatutzean  
malkoak datoz begira  
zu ziñan bezain txori alaiak  
gutxi izaten bait dira  
bertso kantari etortzen ziñan  
sarritan gure herrira  
gaur ere ziur gaude zaudela  
zerutik honuntz begira

## III

Zu galdutzea guretzat ere  
izan zan oso gogorra  
hain ziñan gizon apala eta  
hain ziñan gizon jatorra  
kezka bat dago gure barruan  
aitortzen dizugu horra  
ez dakigu nola ordaindu  
zurekin daukagun zorra.

## IV

Gure herria alaitzen zendun  
beti umore bikaiñez  
ondo dakigu hortan saiatzen  
ziñadela ahaleginez  
zuri entzuten egoten giñan  
gutziz intentzio fiñez  
omenaldi hau eskeintzen zaizu  
zure lanaren ordaiñez.

## V

«Iztueta'tar» Joxe Miguel zan  
Lazkao-mendiko txoria  
buruz azkarra bihotz biguna  
doai askoren jabia  
Lazkao-Txiki guk deitu arren  
zu ziñan gizon haundia  
hargatik inork ezin du bete  
zuk utzi zendun tokia.

## VI

Irripar goxo alaiarekin  
hainbat ipui eta bertso  
entzule danak gozatutzea  
gogozkoa zendun oso  
hor doakizu gure esker ona  
ahalbazenezake jaso  
jakin dezazun zutaz ez dala  
oraindikan ahaztu «Lezo»

**Martzelino Legorburu**  
«ARGIÑANE»

**\* Bertso hauek Martzelino Legorburuk 93-ko  
Santakruzetan Lazkao Txikiri egindako  
omenaldirako idatzi zituen.**